

Herriko kontseiluaren 2017.12.01ko bilkura

Hor zirenak : Jean-Michel Coscarat, Marie-Agnès Haristoy, Antton Curutcharry, Daniel Ithurburua, Bernadette Mousquès, Isabelle Arangoits, Betti Bidart, Monika Indart, Annie Juantorena, Betti Olçomendy, Jean-Baptiste Lambert.

Hor ez zirenak : Frantxoa Mocho, Eñaut Larre (Jean-Michel Coscarat), Marie-Baptiste, Christelle Errecart, Dominique Mendibil (ahalordea Jean-Baptiste Lamberti emanik), Lisa Dumoulin (ahalordea Bernadette Mousquès emanik), Sébastien Clauzel.

20:15

Biltzarraren hastapenean, Priscila Ludovico andereak, « Aldude 2030 » proiektua presentatzen du eta bere « mugikortasun » parte. Pirenoetan et Massif Centralean diren bertze 5 poiektu bezala, esperimentazio proiektu bat da CGET (Lurraldean Berditasunen kontseilu orokorrak) sustengatzen duena.

Hiru esperimentazio eremanak izan dira : autopartekatze eskaintzaren publizitateari buruz, hara-honako ibilgailu baten ezartzea eta mugikortasunaren kontseilari eta proiektu kuderatze bat hartuz.

Uztailaren 31-z geroztik, Euskal Hirigune Elkargoak hara honako ibilgailuen kudeatzea bere gain hartu du (Hiriarteko garraioen eskumena). Eskolako garraioetan, apaitu izan da ,leku libroak badieralik autobusetan, leku horiek dener idekitzea. Helburua da ere trena eta autobusen arteko loturaren laguntzea molde desberdinekin.

Gai ordena :

- 1. Buxeta aldatzen duen erabakia** : 2017ko saneamendu buxetan irabazi maileguak ezarriak izan ziren baina uste baino gora dira. Kreditu biramendu bat behar da egin.
Herriko kontesilua, aho batez , buxeta aldatzen duen erabakiaren alde agertu da.
- 2. Trail estazioaren zerbitzu baten sortzea** : Trail estazioa eta bere web gunea martxan dira. Gidaritza batzordearen bilkuraren ondotik, bi egonaldi hautatuak izan dira publikoari eskainiak izaiteko (« Goxoa » egonaldia eta « Arnoa » egonaldia, kutxa baten maneran) Claude Escot Coach-arekin.
Bainan behar da pentsatu nola altxaltu egonaldi horien diru sartzekak. Hortakotz behar litaik Turismo zerbitzu bat sortu kanpineko eta geroko karabana aparkalekuko sartzekak diren dirueer lotua izanen dena.
Herriko kontseilua, aho batez , Trail estazio zerbitzu baten sortzea alde agertu da.
- 3. Artxiboen zerbitzuari kide izatea** : Kudeaketa Zentroko Artxibuen zerbitzuak gauza desberdinak proposatzen ditu Herriko artxiboen sailkatzeko. Hiru misio eskaintzen dute :
 - 6000 € koa : Estaioko et idazkariaren bulegoko artxiboen lekualdatzea eta inbentorio labur bat egitea.
 - 7402€ koa : Langile baten edo bat baino gehiago batzuen formakuntza eta Artxiboen tratatzearen segitzea.
 - 15700€ koa : Atxibo guzien sailkatzea eta langileen formakuntza.

Herriko kontseilua, aho batez, Artxiboen zerbitzuari kide izatearen alde agertu da lehen misioarendako (15700€koa).

- 4. « ura » eskumenaren eskualdaketa :** Euskal Hirigune Elkargargoko deliberamenduaren ondorioz, herriko kontseiluak hartu behar ditu deliberamendu desberdin batzu : ura eta sameamenduaren prezioen buruz (prezioak ez dira kanbiatuko 2018-an), Auzapezari baimena emaita transferitzeko urari lotuak diren ontasun eta funtsak(gibelerat igortzeko postuen , estazioen eta ur sareen inbentarioa), kudatzeko hitzarmenen izenpetzeko, soberakinen transferitzea ala ez...
Herriko kontseilua, aho batez, ura eskumenaren eskualdaketaz lotuak diren prozedura guzien alde agertu da.

- 5. Apeztxeko leihoak :** Biziki andeatuak dira eta batto eroria da. Arraberritu behar dira. Debisa bat estimatua izan da 3775.20€ koa (7 leiho).
Herriko kontesilua, aho batez , apeztxeko leihoen arraberritzearen alde agertu da.